

AITA SANTI ONAINDIA (1909-1996)

Amoroto'n jaio zan eta Larra'n, Markiña'n, Gasteiz'en eta Begoña'n egin ebazan ikasketak. Gero, guda-aurretik eta ostean Hoz de Anero'n (Santander), Gasteiz'en, Logroño'n eta Eibar'en egon zan. Guda ostean eriotzarako epaia emon eutsoen Gudarien kapellau izan zalako, baiña ez zan betetu –eta espetxetik urten ebanean bere nagusiak Hoz de Anero'ko basamortura bialdu eben, “abitua garbitzeko”.

Toli orreitan igaro ebazan amabi urteak izan ezik, bizitza osoa Larra'n igaro eban.

1926n. urtean asi zan idazten Euskal Esnalea'n, 17 urtekoa zala. Gero Teresatxu deunaren bizitza idatzi eban, baiña au galdu egin da.

1951n. urtean atera eban liburu eder bat “Milla olerki eder”. Guda-ostean lenengo liburua izango da, baiña baitu egin eutsoen eta neskame garbitzailleak atera ebazan batzuk. Gaiñera erbestetik zorion-eskutitzak artu ebazan: Agintariak erbestera bialdu ebezan libururen batzuk, euskerearen alde jokutzen dabela sinistu-erazoteko.

Urte orretan asi zan gero Karmel birtuko dan Karmengo Amaren egutegia ateraten Hoz de Anero'n nagusi zala. 1959n. urtean asi zan Olerti argitaratzen.

65 liburu inguru idatzi ebazan. Eskuartearen erabiltzen dogu 5 ale daukazan Euskal Literatura'ren edestia. Ale bat falta da amaitzeko eta gertu ei dago. Atera-bearrekoa da. Geroago laburpen oso egoki bat argitaratu eban

ikastoletarako, baiña au “h”rik ez eukalako, alboratu egin eben ikastoletatik jaurlariak.

Aldizkarietan asko edatzi eban: Euzkadi, Eguna, Ekin, Karmel, Eusko Gogoa, Zeruko Argia, Olerti, Goiz-Argi, El Bidasoa, Jesus'en Biotzaren Deia, Agur, Príncipe de Viana, Zer, Gure almanaka.

Euskerazaintza'ren batzarretara utsik egin barik etorten zan. Olerki lirikuak egiten be ona zan. Ona emen bat:

BEERANTZA?

Beera oa, eguzki on,
ortzi zear beerantz...
Beera baita, ene erria!
Norantz ote? Norantz?

Illunetik jaikiko ote,
eguzki antzera,
orren bizi opa dugun
askatasun txera?

Ik azken izpiak aulduz,
mendi-bestaldetik
illargia arnas jori,
or jaikiz jadanik.

Bi eskuak alkar-tente
otoitzari nago,
urretxindorrek goizari
baiño be miñago.

Eta ik, ene erri erria,
berantza jotean,
ba al duk norbait goraka
arnasa betean?

OLAZAR'tar Martin'ek

IKUSI JAUNAK EGIÑAK

Egi egitan zara
bardiñik gabekoa
Jaungoiko Altsua,
maitasun onenagaz
guri begira zagoz
Jaun errukitsua.

Jaunak lurra egin dau
ta onegaz batera
urtegi zabala,
bitzuak dira eder
mendi eta zelaiak
ta itxas urdiña.

Lurra emankorra da
gari, arto ta burdin
daukaz babesean,
ta itxaso zabalak
arrain gozoak daukaz
bere biotzeran.

KRISTOREN MAITASUNA

Jainkoaren Semea
Aitak esanda dator
gozonen artera,
giza izatea artu
Jaun izateaz batera
ta dator lurrera.

Mutiltxo baten eraz
Jainko bera izanik
amagaz bizi da,
Gizadia maite dau
argitasun guztiaz
Jaungoiko erara.

Biotz barruan dauka
egiteko aundia
salbamen bidean,
alan be gogo onez
gizadia maite dau
gogo onenean.

APALEINTZUTEN DAUTSE

Jesus, apal, bizi da
aita orde ta amagaz
Nazaret maitian,
bizi Jaubea dana
era orretan dabil
gizonen artian.

Egi pozgarria da
Jesus gizonen aldez,
gogoz, ikustea,
Aitaren izenean
ume aro bertatik
esana eitea.

Jainko Semea zana
edozein mutil antzera
dabil gizartean,
apalak dauz gogoan,
beti, ondo, arturik
gizonen artean.

JESUS KURUTZEAN

Ikaragarriena
ikusteko egoan
gizadi larría,
lurraren Jabe zana
Aitarekin batean
nai dabe iltia.

Jesus gizon antzer
agertzen zan bakarrik
lagunen artian,
iltea asmau eben
Jainko Semea zana
lurraren aurrian.

Egun larri aretan
aldatz gora daroe
Golgota mendira,
billotxik ipinita
Kurutzean il eben
lurrera begira.

PAULIN